


Pasaiako Portuaren Ingurugiroa



La Anunciata Ikastetxea
2013ko Martxoan
Donostia

I. AURKIBIDEA.

	<u>ORRIALDEA</u>
II. SARRERA.	6
1. Zer jaten dugu?	7
1.1. Arrain urdina.	7
1.2. Izoztutako arraina.	7
1.3. Dietak arrainarekin.	8
1.4. Arrain komunagoak.	8
1.4.1. Mero zuria.	8
1.4.2. Mihi-arraina.	8
1.4.3. Bakailao.	9
1.4.4. Txipiroia.	9
1.5. Engainiatzen diguten arrainekin.	9
1.5.1. Niloko Perka: (Mero zuriaren ordezkua).	9
1.5.2. Fletan: (Mihi-arrainaren ordezkua).	9
1.5.3 Berruenda handia: (Bakailaoaren ordezkua).	10
1.5.4 Pota: (Txipiroiaren ordezkua).	10
III. METODOLOGIA.	11
IV. ITSAS PROBLEMATIKA.	14
1. Fukushima.	15
2. Motxoa.	15
2.1 Sufragioaren historia.	16
3. Itsasoko plastikoaren arrantza.	16
3.1. Arreta kofradien artean.	16
V. KLIMA-ALDAKETA.	17
1. Buia zaintzaileak.	18
2. Itsas mailaren igoera Euskadin.	18
VI. LANDAREDIA.	19
1. Alga hiltzaileak.	20
1.1. Susmopean dauden baserriak.	20
2. Algen ugaritasuna.	20
VII. ANIMALIAK.	22

	<u>ORRIALDEA</u>
1. Euskal balea.	23
<i>1.1. Beste animali batzuk.</i>	23
2. Itsas dordoka.	23
3. Kaxalotea Zarautzen.	24
<i>3.1. Erreskatea.</i>	25
<i>3.2. Heriotzaren kausak.</i>	25
<i>3.3. Ehorzketa.</i>	25
4. Marmokak.	25
<i>4.1. Portugalgo karabelaren agerpena.</i>	25
<i>4.1.1. Gomendioak jarraitzea.</i>	26
<i>4.1.2. Bere bisitza.</i>	26
<i>4.2. Zarautz.</i>	26
VIII. GIPUZKOAKO KOSTALDEA.	28
1. Duela 50 urte gertatu zen.	29
<i>1.1. Galerna datuetan.</i>	29
2. Jaizkibel.	30
3. Igeldo eta lanpernen arrantza.	30
<i>3.1. Algen konpostagailua.</i>	31
4. Ulia.	31
5. Ondarreta hondartza.	31
<i>5.1. Kafetegia.</i>	31
6. Kontxa.	32
IX. PASAIAKO PORTUA: INGURUGIROKO EGOERA.	35
1. Informazio orokorra: Laginketa puntua.	36
2. Informazio orokorra: Zona intermareala eta supramareala.	38
3. Uraren azterketa.	39
4. Biodibertsitatea: Marearteko zonaldea.	42
5. Biodibertsitatea: Zona supramareala.	43
6. Gertuko zona.	44
7. Hondakin solidoak: Intermareala eta supramareala.	44
8. Petrolio eta deribatuak.	49
9. Isurketak.	49
10. Ondare kulturala.	50
11. Garbitasun-zinkitasuna.	52

	<u>ORRIALDEA</u>
12. Garbitasun-zikintasuna 92-2011.	53
X. ONDORIOAK.	55
1. Pasaiako portua.	56
<i>1.1. Kokapena eta analitika: Balorazioa, datuen interpretazioa.</i>	56
<i>1.2. Biodibertsitatea: Balorazioa, datuen interpretazioa.</i>	58
<i>1.3. Gizakiaren eragina: Balorazioa, datuen interpretazioa.</i>	59
<i>1.4. Hondakinak.</i>	60
<i>1.5. Garbitasun-zikintasuna.</i>	61
<i>1.5.1. 2011 datuak.</i>	61
<i>1.5.2. Bilakaera: 1992-2011.</i>	62
XI. IRTENBIDEAK.	64
1. Algak vs. Petrolioak.	65
2. Rainbow Warrior II, agur.	65
3. Itsas kontainer batean bizitzea.	65
4. Wavegarden.	66
<i>4.1. Nola sortzen dira olatu artifizialak?</i>	66
<i>4.2. Traktore batek bultzatuta.</i>	67
5. Nabigazio ekologikoa.	67
6. Marea-energia: Mutrikuko haraztegia.	68
<i>6.1. Mutrikuko portua.</i>	68
<i>6.2. Funtzionamendua.</i>	68
<i>6.3. Kostuak.</i>	69
<i>6.4. Ustekabekoak.</i>	69
<i>6.5. Inaugurazioa.</i>	70
7. Marmoken ziztaden irtenbideak.	70
8. Pasaiako Badia.	71
XII. GEHIGARRIAK	72
1. Mapa Bloque G-70.	73
2. Ficha de campo.	75
3. Cuestionario-Galdeketa.	81
4. Informe-resumen del Bloque.	83
5. Posterrak.	92
6. Powerpoint-ak.	95
XIII. BIBLIOGRAFIA.	99

	<u>ORRIALDEA</u>
XVI. EGILEAK.	109
1. Ikasleak.	110
2. Koordinatzailea.	110

II. SARRERA

1. ZER JATEN DUGU?

Azkeneko hamarkadetan, arrainaren eta itsaskien kontsumoak etengabeko hazkundera izan du. 90. urteetan merlenka izarra izan zen bitartean, omega 3ren bertuteen mezua, gaur egun bihotzarako gantz "ona" asko dituen espezieak nahiago izatea eragin du. Adibidez, arrain urdinak. Badirudi omega 3ra etsai ikaragarria bat atera zaiola: merkurioa.

1.1. Arrain urdina.

Berriki, Elikagai-Segurtasunaren eta Nutrizioaren Agentzia Espainiarrak, ugalkor adinean, haurdun dauden emakumeek eta hiru urte baino gutxiago dituzten umeei arrain urdin espezie batzuk ez jatea gomendatu du haien metil-merkurioaren edukiarengatik. Bere kontsumoa saihestea eta 3 eta 12 urte arteko umeei bi eguneko aldi batera erreserbatzea asteko 50g inoiz pasatu gabe proposatzen du. Gomendio hauek ezpata-arrainari, marrazoari, atungorriari eta lutxoari kalte egin diete.

Arraina kalitate altuko proteinetan aberatsa da, "Emma Ruizak, Nutrizioaren Fundazio Espainiarraren proiektuen zuzendariak, baieztatzen du. Bere balio nutrizionala txerri, txekor eta bildots haragietako eta esnekietako balioei oso antzekoa da. Bere bitaminen edukia ere nabarmentzen da, gainera haragia baino gantz gutxiago izatearen abantaila izatea.

Arrain urdinaren balio nutritibo handiena gantza da, bai gantz-azidoengatik bai polisaturatuen gantz azidoen aberastasunarengatik. Emma Ruizek odolean kolesterola murrizteko kapazitatea nabarmentzen du, eta bere eragina plaketetan, gaixotasun kardiobaskularra eragin ahal duten koaguluaren eraketa saihesten. Gainera, sistema immunerako eta nerbio-sistamarako oso efektu onuragarria dauka.

1.2. Izoztutako arraina.

Arrainaren balio biologikoa oso gutxi da konserbatzeko prozesuengatik. Forma industrialan izoztutako arrainak haien ezaugarriak hobeto konserbatzen dituzte, temperaturaren jaitsiera oso azkarra delako. Izoztean hobeagoa da motelago egitea hozkailuaren barruan, mikrouhina erabiltzea edo zuzenean kozinatzea baino. Hoberena izozketa azkarra lortzea da, luzatzen bada izotz-mikrokristalak eratzen direlako eta produktua hondatu egiten da. Arrain zuria 6 hilabete baino gutxiago egon behar du izozkailuan, urdina, 3 baino gutxiago.

1.3. Dietak arrainarekin.

Elikagai honetan aberatsak diren dietak obesitatea izateko probabilitateak murrizten dituzte, hain baxua daukadan emari kalorikoarengatik eta arraina konsumitzean emari kaloriko handiagoa dituzten elikagaien hartzea gutxitzen duelako. Arrain urdina zuria baino kaloria gehiago ditu.


Itsasoko produktuak gure urdailean oso denbora gutxi egoten dira, eta horregatik jatean arinagoak sentitzen gara. Arrainaren haragia digeritzeko erraza da.

Arrain gordina jatearen arriskua anisakisean dago, bertan bizi den parasito bat eta digestio-aldaketak eta alergia eragin dezakena. Urtero gaixotasun honeko kasu gehiago daude, horregatik saihestea jakitea oso garrantzitsua da. Anisakisa eliminatzeko, kozinatzen den bitartean arrainak 80 gradutara iritsi behar du.

1.4. Arrain komunagoak.

1.4.1. Mero zuria.

Asko daude. Bere gorputza luzanga eta lauketa da eta masailezur irtena du. Bere kolorea arre txokolatea da, beste batzuk orban horiak, okreak edo gorriak dituzten bitartean. Hegalak eta uzki-hegatsak beltzak eta zuriak dira. Hegalak biribilduak dira eta baseak ezkatadunak. 60 zentimetro eta 1,40 metro artean neurtzen du, eta bere pesua 4 eta 50 artekoa da mero-ale handietan.




1. ARGAZKIA. Mero zuria.

Hondo harritsuetan, kobetan eta haitzuloetan bizi dira. Animalia bakartia eta lurraldekoa da. Ehiza-zona bat dauka bere gordelekuaren 500 metro karratu inguruan. Nahiago ditu 20 eta 200 metro arteko sakonera dituzten hondoak.

Gehien preziatzen den eta gastronomiak gehien ezagutzen duen arrainetakoa da.

1.4.2. Mihi-arraina.



2. ARGAZKIA. Mihi-arraina

Bere burua marroia edo grisa da, orban ilun handiekin eta orban argi txikiekin. 30 zentimetro inguruan neurtzen du eta 450 gramo eta kilo artean pesatzen du.


Plataforma kontinentalaren hondar-hondoetan bizi da, 30 eta 300 metro arteko sakoneratan. Hondarrarekin kamuflatzen da

harrapariak saihesteko.

Mihi-arraina urte osoan aurkitu daiteke merkatuan. Kalitate onekoa da. Gama altuko edozein jatetxeetan aurkitu daiteke.

1.4.3. Bakailao.


Kolore berdexka eta horixka dauka. 50 eta 80 zentimetro artean neurtzen du eta 40 eta 45 kilo artean pisatzen du. 90 kiloetara eta 1,8 metrotara iritsi dezakete. Linea lateral bat dauka eta sabel zuria eta hegalak borobilak.



3. ARGAZKIA. Bakailaoa

500 eta 600 metro artean bizi dira. Baina normala da 150 eta 200 metro artean igeri egitea.

Bakailaoaren garaia udazkenaren amaieratan da. Orojalea da.



4. ARGAZKIA. Txipiroia.

1.4.4. Txipiroia.

Bere luzera 15 eta 25 zentimetro artekoa da. 40 zentimetro neurtzera heldu dezake. 10 tentakulu ditu.

Norwegian eta Mediterraneoan bizi da, 10 eta 500 metro arteko itsaso irekian.


Udan harrapatzen dira. Bere tintan egiten dira.

1.5. Engainiatzen dizuten arrainekin.

1.5.1. Niloko Perka: (Mero zuriaren ordezkoa).

120 espezie ditu. Perka komuna *Perca fluviatilis* da. 2 metrokoak izan daiteke.


Ibaitan eta aintziretan bizi dira. Perkak sarritan multzotan mugitzen dira eta aintziretako hondoetan ehizatzen dute.



5. ARGAZKIA. Niloko Perka.

Meroa bezala merkaturatzen da. Arrautza-irinetan pasata edo plantxan egiten da.

1.5.2. Fletan: (Mihi-arrainaren ordezkoa).



6. ARGAZKIA. Fletan.

Halibut beltza edo fletan beltza bezala ezaguna. Bere gorputza obalatua, luzanga eta haragitsua da. 4 metro neurtzera eta 400 kilo izatera iritsi dezake.

Atlantiko norokzidentalaren uretan bizi da. Sakonera 100 metrotik 2000 metrora da.

Bere haragia ez du lehenengoaren kalitateari heltzen. Norvegiar plater bat dago fletan errearekin, gurinarekin, azenario kremarekin eta patatak perrexilarekin.

1.5.3. Berruenda handia: (bakailaoaren ordezkoa).

Bere gorputza ia zilindrikoa da. Bere luzera metro batekoa da eta 35 kilo pisatzera ailegatzen du.

Hondo arritsuak nahiago du, 20 eta 700 metro arteko sakoneratan. Krustazeoz elikatzen da.


Bere haragia preziatua da bere fintasunarengatik.

1.5.4. Pota: (txipiroiaren ordezkoa).

Luzanga da, 20 eta 25 zentimetro artean neurtzen du. 75 zentimetro neurtzera heltzen dira.

800 metro edo gehiagoko sakoneratan bizi da. Arrain pelagikoak jaten ditu.

Txibi mazietan erabiltzen da.



7. ARGAZKIA. Pota.

III. METODOLOGIA

Duela 20 urte **LA ANUNCIATA** parte hartzen duela Azterkosta proiektuan, Euskal Jaurlaritzaren ingurune-hezkuntzako programa eta Aztertu proiektuaren barne dagoena. Programa hau uraren azterketan datza eta horretarako Pasaiako Portuaren zonaldea hartu eta 5km 10 laginketa puntuetan banatzen dira. (**1. GEHIGARRIA** ikusi).

20 urteetan zehar **LA ANUNCIATA** ikertzen dituen 10 laginketa puntuak, **G-70** blokearenak dira, Molinao Kaiatik Arando Txiki arte eta Pasaiako hiru barrutiak hartzen ditu: Antxo, Donibane eta Trintxerpe. Baita Donostiako auzo batzuk ere: Altza eta Herrera.

Laginketa puntu bakoitza **LA ANUNCIATA**ko ikasleek aztertu dituzte 3 edo 4 pertsonetako taldeetan banatuta eta lehendik proiektuan parte hartu duen koordinatzaile batekin

Aztertu diren alderdiak hauek izan ziren: (**2. GEHIGARRIA** ikusi).

- Ura.
- Zaborrak.
- Uretako eta lehorreko landaredia.
- Supralitorala y mesolitorala ezaugarri geologikoekin, fisikoekin, animaliak eta landaredia.
- Uretako edo portuko olioia eta petrolioia.
- Lurretik kostara heltzen diren ur lasterrak.
- Kostako ura.
- Uretako animaliak eta bereziki itsas-hegaztiak.
- Industriak.
- Isurketak.
- Azpiegiturak.
- Kostarekin erlazionatutako ondare kulturala.

Egin ziren analisi-fisiokimikoak:

- pH-a.
- Tenperatura.
- Kolorea.
- Usaina.
- Aparra.
- Uhartasuna.



8. ARGAZKIA. Ur laginak hartzen 10. zonaldean.

- Bizitza presentzia.
- Materia organikoa (metileno urdina).
- Disolbatutako oxigenoa.
- Nitratoak eta nitritoak.
- Gogortasun totala.
- Karbonatoen gogortasuna.

Laborategian ere, analisi kimikoak egin ziren:

- Amonioa.
- Fosfatoa.
- Kloroa.
- Nitratoak eta nitritoak.
- Disolbatutako oxigenoa.
- Materia organikoa (permanganato potasikoa).



9. ARGAZKIA. Analisi kimikoak laborategian egiten.

Pasaiako Portuan azterketa egin eta gero galdeketa bat betetzen da puntu bakoitzako (**3. GEHIGARRIA** ikusi). Froga guztiak bukatutakoan, 5km-ei buruzko laburpen bat egiten da (**4. GEHIGARRIA** ikusi).

Lana egin baino lehen, kostaldeko egoerari buruzko informazioaren bilketa egin zen. Bai munduko kostari buruzko, bai Kantaurikoari buruzko baita Pasaiako portuari buruz ere.

Informazio guztia jasotakoan, hainbat ataletan banatu zen eta lantzen bitartean, Portuko ingurugiro egoerari buruzko emaitzak sailkatu zituzten, atalez atal eta aztertu ziren. Horrela lortu ziren proiektu honen azkeneko ondorioak eta gure kostaldeko egoera mantentzeko edota kontserbatzeko proposatu ziren irtenbideak.



10. ARGAZKIA. Pasaiako Badia.

Bukatzeko azken txosten zehatza idatzi zen ziriborroz egin ondoren. Gero denon artean birpazatu zen eta paperez eta digitalez kopiak egin ziren.

IV. ITSAS
PROBLEMATIKA

1. FUKUSHIMA.

Fukushimako katastrofe nuklearra bikoitza da. Alde batetik, Japoniako arrantzale ekonomiari kalte eragiten dio, eta bestetik, itsas ekosisteman ere, kalteak eragiten dizkio.

Herritarren sufrimendua handitu egin zen, Fukushimako gertaera berriengatik. 2 eta 3 erreaktoreen fusio arriskuari, erreakzio nuklearraren ez dagoen kontrolaren arriskuari, milaka pertsoneri kalteak eragiten dizkion hodei erradiaktiboari; beste arazo bat gehitu behar zaie: ozeanoko ur kutsatuta. Ur kutsatuta hau, 11.500 tonelada ur erreadiaktibo dira. Gutxi gorabehera 7.000 litro orduko. Isurketa hauek, erreaktore kutsatuengandik dator. Kutsadura hau, erradiaktibitatea igortzen dute, 120-160 egunez.

11.500 tonelada horien isurketak, espazio likidoak bideratzeko egiten dituzte. Ura, bigarren erreaktoretik ihes egin du eta eragin hauek izan ditu.


2. MOTXOA.

Euskal herrien udal-ordezkariek Ingurugiroko Departamendua kritikatu dute, norma jakin batzuk ez jarri eta ez betetzeagatik, zonalde delimitatuak babesteko.

Eguzki elkarte ekologistak, Gipuzkoako Diputazioa salatu zuen, hauek beraren eginbeharrak ez betetzeagatik: zaharberitze lanak Motxoaren desegitean, Deba eta Zumaia artean hondoratu zen arrantzarako Bermeotarra, 2010eko azaroaren 4aren gauean.

Gipuzkoako biotopoen arduraduna, Iñigo Mendiola eta Debako alkateak, Jesús Mari Agirrezabala, kontentu azaldu ziren, empresa batek “Motxoa” hondoratu zen tokian egiten ari den birgaitze prozesuarengatik. Biek, Eguzki elkarte ekologistak egindako salaketa arbuiatu zuten. Honek, zonaldea ez zela zaharberitu esaten baitzuen.

Bestalde, Eguzki elkarte ekologistak, istripua gertatu eta urte bat beranduago zehazki ez dakitela zer gertatu zen eta “orbainak” mantentzen direla salatu zuen. Horregatik, Gipuzkoako Diputazioari Motxoari buruzko informazioa eta berritzeko esfortzu bat eskatu du.



11. ARGAZKIA. Motxoa

2.1. Sufragioaren historia.

“Motxo” Debako ur sakonetan zebilen. Bertan zeuden tripulatazaileek, Pasaiako Portura joateko asmoa zuten, gauean arrain gutxi harrapatu ondoren. Baina itsasontzia, olatuek hartu zuten eta hauek arroketa arrastaka eramane zuten.

3. ITSASOKO PLASTIKOAREN ARRANTZA.

Itsasoa plastikoz eta kutsatzen duten hondakinetaz beteta dago.

Europako komisioak, langabezia zeuden arrantzale eta marinelak uretan zeuden plastikoa arrantzatzea proposatu zuen.

Uraren kutsadura, gero eta handiagoa da eta arrantzaleen artean langabezia sortzen da, arrantza gero eta urriagoa da eta.



12. ARGAZKIA. Itsas-plastikoa

Uretik kutsadura sortzen duten objektuak kentzearen ideia, Maria Damanakirena izan zen eta proiektua “Costa Azulen” jarriko da martxan.

Mediterranean itsasoa, hiru kontinenteen artean dagoen itsasoa, zabortegei batean bilakatu da. Bertan, plastikozko 250.000 miloi objektu aurkitu baitira. Gutxi gorabehera, 500 tonelada, uretan murgilduta.

Gu geuk, Lurren bizi garenak, kutsadura modu azkarra eta krudelean eramaten dugu.

“Itsasoko plastikoa arrantzatzen” proiektuarekin, uraren kutsadura kopuru txiki bat murriztea lortzen da. Era berean, plastikoa uretara botatzeagatik isuna jartzea proposatu zen.

Bruselasek dio, proposamen hauek ez direla nahikoa eta munduko gainerako itsasoak ere larritzekoak direla. Beraz, itsasoaren alde hainbat proiektu proposatu zituen. Proiektu hauekin ez da bakarrik uraren kutsadura kentzen; arrantzatutako plastikoa ere, birziklatu egiten dira eta hori dela eta jarduera ekonomikoa handitu egiten da.

3. 1. Arreta kofradien artean.

Galdera hurrengoa da: Arrainak plastikoen artean aldatu?

Arrantzaleek, ez diote proposamenari uko egiten. Baina ez dute onartzen, idatziz ikusi arte. Pertsona askoren ustez, arrantzaleak beharrezkoak dira plastikoa itsasotik ateratzeko, eta beranduago birziklatzeko.

V. KLIMA-ALDAKETA

1. BUIA ZAINZAILEAK.

Argo sarea perfiladorez osatuta dago.

Bakoitza ozeanoan murgiltzen da, 2000 metrotara iritsi arte. Gero, igotzen da, ozeanoaren tenperatura eta gazitasuna jeisten den bitartean. Lortutako datuak satelitez bidaltzen dira eta ozeanoaren egoeraren argazki bat sortzen du.

IEOren Kanarietako zentro ozeanografikoaren ikertzaileek meridioan dauden tenperaturak ikertzen dituzte. Meridiano hau oso garrantzitsua da, bertan berotasun maximoa dago eta.

Argo sarearen espazio-denborale estalduraren datuak ia ezin hobekak dira, modu tradizionalarekin lortzen diren emaitzekin konparatzen badira. Adibidez, Malaspina Espedizioa 2010, 18 perfiladore eta 20 buiak bota ditu ozeanora.


Beharrezkoa da ozeanoan dagoen gazitasunaren informazioa izatea (Argok ematen dituenak) planetaren aldakortasun klimatikoa hobetzeko.

Guzti honengatik, Espazioaren Agentzia Europarrak SMOS deitzen den satélite bat bota zuen, sensore bat erabiltzen duena ozeanoaren gazitasuna jasotzeko.

2. ITSAS MAILAREN IGOERA EUSKADIN.

Itsas mailaren igoera tenperaturaren igoerengatik edo Antartidaren eta Groenlandiaren lurmentzearengatik sorrarazten da. Itsasoa klima-aldaketaren esker berotu da. Landareetan, animalietan eta gizaki-jardueretan eragina izaten du. Nahiz eta airea kutsatzen utzi, itsasoa hazten jarraituko zen.

Beroaldi gehiago eta eurite gehiago egoterakoan uholdeak eratuko lirateke; batez ere Zarautzen, Orion eta Hondarribin. Baina bereziki Zarautzen.



13. ARGAZKIA. Buiak.

VI. LANDAREEDIA

1. ALGA HILTZAILEAK.

21 basurdeen gorpuen agerpena Saint Briec Badian, Britainia Handian, eta guztira 32; 2011ko uztailaren hastapeneetatik, alarma egoera bat sortu zuen eskualde frantses honetan, heriotzak osasun arazo batekin erlazionatuak zeudela uste zen eta hori pertsonentzat arazo bat suposatu zezakeen.

Hainbat basurde hildak zeuden Saint-Mauricio hondartzan, Morieux herrian, itxita zegoela uztailaren 8tik alga berde ugariengatik. Alga berde hauek urtero inbaditzen dituzte kosta bretoien zenbait puntuetan.

Frantziako Ikerketa Zentro Nazionalaren (CNRS) ikertzaileak, Philippe Potin, heriotzeen kausa algek botatzen duten hidrogenoaren sulfuroa izan daitekela esan zuen.

1.1. Susmopean dauden baserriak.

2011an 25.000m³ alga kendu ziren hondartzeetatik, 2010an kendu zenaren bikoitza.

Gertaera hau duela 30 urtetik gaur arte gertatzen da, baina oraingoan maila oso altu batera ailegatu da, gainera turista gehien dauden denboraldian.

Jean Francois Piquot, Britainako Ura eta Ibaiak kolektibo naturalistaren bozeramaileak, nekazaritza-ongarrien erabilera masiboarengatik eta aziendaren hazkunde intentsiboarengatik probokatuta dagoela esaten du, bereziki txerri-aziendeena.

“Proposatzen den irtenbidea beti berdina da, aziendaren hazkuntzaren kontrola egin behar da” adierazi zuen Piquotek.

2. ALGEN UGARITASUNA.

Donostiako Udaletxeak algak hondartzetatik kentzeko giza-baliabideak eta baliabide materialak gehitu dituela baieztatu du. Udalaren garbiketa zerbitzuek 35 tona kendu zuten.

Udal-gobernua baliabideak gehitu ditu algak kentzeko eta 2011ko uztailaren 31an garbiketa-zerbitzuak 35 tona kendu zituztela eta hurrengo egunean beste 46 tonelada kendu zirela bereiztu



14. ARGAZKIA. Algen kentzea.

da.

Algak Kontxako pasealekuaren hormetan multzokatu ziren, Udeletxetik gertuago dagoen aldapan.

Hurrengoetan, itsasgoretan kenduko dira, horrela garraiatzea errezagoa da eta.

Hurrengo lanaldietan taldeak langile gehiagorekin berregiten erregistratuko dira.

Galapazok, langile batzuk algak arrasteluekin ateratzen hasi zirela esan zuen eta lan zailtasun bat da algak eta hondarra nahastuta baitaude.

VII. ANIMALIAK

1. EUSKAL BALEA.

Duela 110 urte Orion azken euskal balea harrapatu zen dinamita erabiltzen

Ingurunearen Ministerioak euskal balea desagertzen arriskuan dauden espezieen zerrendan sartu du, esaten du bere biziraupena luzca ez dela izango. Hau egin dute euskal balea itsasertza espainiarra bueltatzen bada oso babestuta egotea nahi dutela.

Autonomia erkidegoek hartu behar dituzten neurriak hauek dira: kokapen-lekuen aldaketan, dinamikaren eta bideragarritasunaren (viabilidad poblacional), habitaten egoeraren eta arrisku-faktoreen ebaluazioaren informazioa jarri.

Cadizeko Golkoan izan zen euskal bale bat ikusi zen azken aldian, eta kume bat zeukan.

Euskal balea gehiegizko ehiza jasan du, hiltzea oso erraza zelako; flotatzen baitzuen eta oso erraza baitzen uretik berreskuratzea.

Itsasoa ez ditu mugarik, eta beharbada euskal balea itsasertza espainiarrara bueltatzeko aukeraren bat egon daiteke

1.1. Beste animalia batzuk.

Euskal balea ez da desagertzeko arriskuan zen animalia bakarra izan, zerrendaran hartz arrea, miru gorria, basoilar kantabrikoa, ugatza, txantxikua, bisoi europarra, katamotz iberiarra, Mediterraneoko itsas txakur fraidea, saguzar (patudo), desman iberiarra, antzandobia, zingira-berdantza, txonta urdina edo martin arrunta ere gehitu dira.

Kurlinta erreala, basoilo (hubara), kanariar sai zuria, arrano inperial iberiarra, murgilaria, Kanarietako musker erraldoia eta sorgin-orratza ere badaude.

2. ITSAS DORTOKA.

Galtzeko arriskuan dago. Urtean 16000 desagertzen dira Madagaskarren. Turistentzat oso erakargarri dira baina baita ehiztariantzat ere, legez kontrakoentzat debekatuta dagoelako dortoken harrapaketa. Nahiz eta neurriak jarri, dortoka espezie gehienetan desagertzen dira, legeak hausten dutelako.

Afrikako uharte honetako dortokak esplotazio biktimak dira.

Dortoken harrapaketa legez kontra doa. Baina eskualde bakar batean, 16000 harrapatzen dira.

Garantía handia ematen zitzaion harrapaketa txiki horiei. Zaila delako kontrolatzea. Arriskuan dauden espezieak zaintzeko, tokiko herritarren laguntza behar da.

Harrapaketak
aztertzeke, bizilagunei
lagunatza eskatu zieten.

Dortoka bakoitzaren
harrapaketak dokumentatu eta
ahal bazuten argazki bat atera
behar zuten, eta datu
biologikoak hartu.

699 dortoken
harrapaketa dokumentatu
zituzten. Eta lau espezieen

artetik, harrapatutako %93,6a dortoka berdea zen. Eremu jakin hartan urteko, 10.000tik
16.000ra harrapatzen dira.

Haragi iturri dira bertakoentzat, horregatik baimenduta dago etxeke
kontsumorako harrapatzea, baina hauek legez kanpoko merkatura ere eramaten dituzte.
Horregatik da garrantzitsu haiek dortoken iraupena jakitea. Emaitzak kostalde
tropikaleko zenbait lekutan errepika daitezke, hala ere irtenbide bat aukeratzea zaila da.
Debekatuta eta guztiz harrapatzen jarraitzen dutelako.


3. KAXALOTEA ZARAUTZEN.

2011ko abuztuaren 26an kaxalote bat agertu zen gipuzkoar kostaldean.
Kaxalotea gaztea zen, 12 metroko luzera eta 30 tona zituen. Espezie hau oso banatuta
dago ozeanoetan guztietatik. Bere buru ikaragarria da 4 metro inguru neurtzen zuen eta.

Animalia goizeko sei t' erdi aldera Zarautzeko hondartzara iritsi zen eta egunean
zehar lekukoak hurbildu ziren zetazeoa hurbiletik ikusteko. 300-400 pertson inguru
kaxalote txikiari begiratzen zioten segurtasun-lerrotik. Euskal kostaldean espezie hau
udan eta udazkenean egoten da.



15. ARGAZKIA. Itsas dortoka.



16. ARGAZKIA. Itsas dordoka.

Adituek ziotenez, desorientatu zen eta kostaldera iritsi zen.

Kaxalotea hil egin zen bi ordu ertzean egon eta gero, bederatzi t'erditan gutxi gorabehera. Aranzadi Zientzaren Elkarteak zetazeo gaztearen heriotza ikertuko du.

3.1. Erreskatea.

Erreskatea bukaezina egin zen. Lehenengo ordutik bi aukera zeuden zetazeoa hondartzaren ertzetik ateratzeko: lurretik edo itsasotik. Hasieran Pasaiko remolkadore batek animalia eramango zuen Orioko portura arte. Bertan bi garabi itxarongo zioten garraiatzeko, baina ez zen horrela izan.

Olatu fuerteak zeuden eta lurretik atera zuten. Horretarako bi garabi erabili zituzten. Garabiak malekoian jarri ziren eta poliki-poliki animalia altxatzen hasi ziren. Gaueko hamarretarako oraindik ez zuten amaitu.

3.2. Heriotzaren kausak.

Animaliaren heriotzaren ikerketa eta gero, produktu toxiko edo plastiko baten irensketa baztertu zen. Aranzadik animalia ikertu eta gero, 15 zentrimetroko luzera zuen har txiki bat aurkitu zuen. Zetazeo gazteak duela egun batzuetatik ez zuen ezerrez jaten, bere urdailan bakarrik txibi-puxkak aurkitu ziren, bere eguneroko elikagaia. Zetazeoa marka handiak zituen txibi erraldoi batekin borrokatzeagatik.

3.3. Ehorzketa.

Animalia zelai batean ehortzi zen, baina tokia ez zen argitu. Bost urte gutxi gorabehera egongo da ehortzita.

Zetazeoa ehortzi egingo da usteltzeko, gero bere hezurak aquariumean erakutsi ahal izateko. Ehorzketa zazpi ordu inguru iraun zuen. Bere hilobia hartxintzarekin egin zuten eskeletoa egoera ezin hobean egoteko. Zuloak 20 metroko luzera, 3,5ko sakonera eta 2,5ko zabalera buztanaren aldean eta 3.5 metrokoa buruaren aldean zituen. Kaxalotearen ehorzketan zeuden pertson guztiak pozik zeuden bere lana ondo egin zutelako. Basalore-sorta txiki bat bota zioten agur gisa.

4. MARMOKAK.

4.1. Portugalgo karabelaren agerpena.

Urte bat gehiago, elkarren segidako lau urtetan, Portugalgo karabelak gipuzkoako hondartzetara itzuli dira. Batez ere, Zarautzera eta Donostira. Baina ere Bizkaiako toki batzuetara.

Donostiako Udaletxea bainulariei jadanik ohartarazi die; baina hala ere, jada gertatu dira lehenengo ziztadak. Nolanahi ere, gure hondartzetan jada jarritak daude bandera horiak (uretan arreta adierazten du), zuriarekin batera egoten direla (marmokak daudela adierazten du) edo gorria ere (bainuaren debekua adierazten du) marmoka ugari daudelako.

Badaezpada, Donostiako Udaletxeak hiru itsasontzi prestatuta ditu espezializatutak dauden langileekin, haien sarrera saihesteko Donostiako badian. Modu honetan itsasotik marmokak galdiaraztea saiatuko dira, langileek kontrol eta bilketa lana izango dituzte. Goizero itsasontzi bat, erdi miliara aterako da marmoken eta uraren egoera aztertzeko. Joan den urtean, metodo hau ere erabili zen, baina bakarrik itsasontzi batekin, eta oso eraginkorra izan zen. Hau izan zen 2001an “Prestige” ontziarekin erabili zen metodo berdina.

4.1.1. Gomendioak jarraitzea.

Bainulariek sorosleen gomendioak jarraitu behar dituzte Portugalgo karabelak saihesteko, zeinen ziztada mingarria den eta arriskutsua izan daitekeen umeentzako, adinduentzako eta pertson asmatikoentzako, alergikoentzako edo kardibaskular arazoak dituztenentzako. Hala ere, bigarren pikadura bat oso arriskutsua izan daiteke, gorputza pozoiarri sentsibilizatu delako. Horretarako, Donostiako Udaletxeak turistei informazio-orriak banatuko die Portugalgo karabelari buruz informazio gehiago izateko.

4.1.2. Bere bizitza.

Marmoka hauek puxika edo poltsa urdineko forma dute eta oso erakargarriak dira umeentzat. Baina horri esker errazagoa da ikustea eta jasotzea. Itsas azaleran egoten dira flotatzen, gas beteta daudelako, eta mugitzen dira haizearen edo ur-lasterren mende.

10-15 zentimetro neurtu dezakete baina azaleraren azpian duten tentakuluek 30 metroko luzera hartu dezakete. Baina urte honetan iristen ari diren karabelak txikiagoak direla dirudi eta batzuetan harrapatzea gehiago kostatzen da. Hori bai, arriskutsuak izaten jarraitzen dute, pozoia kontzentratuagoa dago eta.

2008tik gaur arte, Portugalgo karabela gure kosta nagusitzen joan da. Badirudi leku apropos bat aurkitu dutela eguberrian eta udan bizitzeko, argia ordu gehiago dagoelako eta tenperaturak altuagoak direlako.

Beraien tentakuloekin hartzen dituzten planktonez eta arrain txikiz elikatzen dira

4.2. Zarautz.

Marmoka gehiago etortzen dira Zarautz-ko hondartzara bere ezaugarriengatik: 2,5 kilometroko luzera du da eta itsasora irekita dago. Urte bat gehiago, sorosleak eta bainulariak adi-adi egon behar direla dirudi.

2011ko uztailaren 14a oso egun txarra izan zen Zarautz-ko hondartzan. Egun horretan mila marmoka baino gehiago jaso ziren: 500 itsasoan eta beste 500 ertzean. Datu horri aurreko egunetan jaso ziren beste 500 marmoka gehiago gehitu behar dira.

Gainera ziztadeengatik 20 pertson sendatu behar izan zuten eta 2 osasun-zentroetara joan behar izan zuten ziztada larriengatik. 20 pertson horiei azken egunetako beste 10 gehitu behar zitzairen.

Zarauzko bainulari batzuek Donostiako método berdina erabiltzea nahi zuten (3 itsasontzi atera urak aztertzeko). Baina plan hori ez zen martxan jartzen ez zuen ezertarako balio 2,5 kilometro hondartza irekita dago eta. Beraz sorosleak denetik arduratzen dira.

***VIII. GIPUZKOAKO
KOSTALDEA***

1. DUELA 50 URTE GERTATU ZEN.

1961ko uztailearen 11rako, tenperatura jeitsiera, euritea eta haizea igarri zituzten. Baina iragarpena motz geratu zen.

Udako gau lasai bat zen, itsasontzietako kanpoaldean zeuden zaindariak hotz izaten hasi zen arte. Tenperatura aldaketa ugaria zen. Zaragozan 40°C egiten zituen arren, Finisterren hotz handia zegoen. Hotz hori, pixkanaka-pixkanaka, zabaltzen joan zen.

Lugon, galerna altxa zen; eta honek dena suntsitu zuen.

Udako gau hura, beldurgarria izan zen; amets-gazto baten modukoa. Itsasontzi askok, olatu indartsu eta haizearen aurka borrokatzen ziren, norabide zuzena hartu, eta lurrera iristeko.

Baina ahaleginak, ez zituzten ezertarako balio izan. Agustín Iturzaeta, 14 marinel zituen itsasontzi baten nagusia zen. Berak, ongi gogoratzen du, haizeak itsasontzia nola astintzen zuen goizeko ordubietan. Beste bi itsasontzirekin, egunsentira abiatu eta odisea bat balitz bezala, lurrera iritsi zirela dio. Azkenean, Getariako portura iristea lortu zuten; bertan, beraien emakumeak zain zeuden.

Bernardo Lazkanotegik ere, tragedia bizi zuen. Bera, bere aita laguntzen zuen; ume bat zen eta. Hala ere, atzo izan balitz bezala gogoratzen du. Berak, Joxe Tife tripulatzailea falta zela dio. Batzuk, bizkarrez igerian ikusi zuela diote. Baina ezer ez zen segurua, eguraldi hori dela eta. Agustín Tifek, Joxe Tiferen semea, gaizki pasatzen du, hura gogoratzen duenean. Beraz, amorrua ematen dio, gertaera hori Gipuzkoan ez gogoratzea.

1.1. Galerna datuetan.

Kantauri Itsasoko 83 arrantzalek bizia galdu zuten. Horietatik, Baionako 1, Hondarribiko 1, Pasaiako 1, Donostiako 12, Kantabriako 10, Asturiaseko 24 eta Galiziako 34.

Eguraldia dela eta, 23 itsasontzi ondoratu ziren.

Beauforten eskalaren 12 graduen barne, 10 gradukoa izan zen ekaitza.

Itsasoaren egoera “menditsutzat” jo zen, 150km/h haize-bolada eta 12 metrotik gorako olatuekin.

2. JAIZKIBEL.

2011ko uztailean, Jaizkibel “Natura 2000” proiektuan sartu zen EAEko babestutako gune bihurtuz, habitata babestu nahian.

Sare horren barruan egon arren, Jaizkibelgo Kanpoko Kaia egin ahal izango da, proiektuak babestutako gune horretarako espezieetan ez dituelako eragin kaltegarriak.

Salbuespen bat ere badago eta hau sozial eta ekonomiko aldetik beharrezkoa izatea datza.

Baina aditu batzuen arabera, kaia egitea, ondorio kritikoak izango ditu. Orduan, hemen sortzen dira eztabaidak eta iritzi desberdinak.

Eusko Jaurlaritzako Bioaniztasun zuzendaria, komunikazioa lortzeko kaia eraikitzearen alde dago.

Bestalde, Oceana elkarteko kide batek, uste du kaia eraikitzeak biodibertsitatea kaltetuko duela. Hobe dela kaia ez eraikitzea biodibertsitatea dela eta.

Iritzi desberdinak daudenez, urte erabakigarria izango da Jaizkibelgo inguruaren babeserako.

Jaizkibelgo eta Uliako itsas eremua babestuz, korridore ekologiko bat eraikitzeko proposamena aukeztu zuten ere. Korridoreak 35 kilometro luze eta 27.000 hektarea izango zituen.

3. IGELDO ETA LANPERNEN ARRANTZA.

Lanperna arroketara itsatsita bizi den krustazeo mota bat da. Hermafroditak dira eta gero eta olatu gehiago egon, biomasa handiagoa dago. Karekizko plaka batzuen bidez babestuta daude eta uretako partikulaz elikatzen dira.

Euskal kostaldea da lanpernen hazkuntzarako leku aproposa, dituen ezaugarriak dela eta. Hala ere, krustazeo honen gehiegizko ustiapena dela eta, beraren presentzia desagertzeaz dago.

Gehiegizko ustiapenarekin bukatzeko, Eusko Jaurlaritzak, kostako 10 km babestu ditu; 2012ko martxotik, Donostiatik Orio bitarteko eremuan, lanpernen arrantza debekatu.

Zonalde honetan gainera, zainketa indartu dute eta 2012ko apirila arte itxita egongo da, krustazeo honen biomasa handitu nahian; eta honetarako ere, aurrerago, ustiapen profesional bat jarraituz.

Aipatutakoa lortzen denean, hau da, lanpernen biomasa handitzen denean, profesionalki ustiapenera dedikatzen den jendeak, lanpernak ustiatu ahal izango ditu.

Alde batetik, kofradiak egongo dira, eta bestetik, arrantzale autonomoak. Hala ere, lanpernak hartzea oso arriskutsua da.

3.1. Algen konpostagailua.

Bestalde, Igeldoko kala batean, algen konpostagailu bat eraikitzea proposatu dute. Proiektu hau, Eguzki kolektiboak proposatu du.

Algen bilketa 2006ean eten zen eta proiektu hau, lehendik proposatuta zegoen. Orain, berriro proposatu dute, birziklapena helburu bezala.

Konpostagailua, Agiti kalan egongo da; erreboilo haztegi zahar batean.

4. ULIA.

Donostiako udaletxeak, bere itsas-gunea babestea proposatu du; Jaizkibel eta Uliaren aurrealdean korridore ekologiko bat eraiki, habitat naturala eta itsas landaredia babesteko.

Zonalde honetan, espezie ugari aurkitu dira: mazopak, izurdeak, belakiak, anemonak eta arrain espezie asko esaterako.

“Mompas” pasabideari dagokionez, Uliako itsaslabarrean kokatuta, uste dute, zonalde honetako biodibertsitatea babesten laguntzen ez duela. Beraz, pasabide hau Jaizkibelekin batera, “Natura 2000” proiektuan sartzea erabaki dute.

5. ONDARRETA HONDARTZA.

Ingurugiroko Ministerioak, hainbat azterketa egin ditu, Ondarreta hondartzan dauden harrien arazoaren txosten bat biltzeko. Harri hauek, ibilaldia eta bainua eragozten diete hainbat bainulari eta ibiltariei.

Gainera, beste ikerkuntza bat aurrera eramán zuten. Hau, harearen azpian zer dagoen, sakontasuna eta harrien funtzioak jakiteko.

5.1. Kafetegia.

Ondarretako harrien agerpena, bertan dagoen taberna jatetxearekin lotuta dago.

Taberna jatetxea, urte amaiera baino lehenago itxiko dute, beraren emaitza txarra dela eta. Era berean, jolastokia eta udan jartzen diren eguzki ohilak kenduko dituzte.



17. ARGAZKIA. Ondarreta hondartza.

Bestalde, kafetegiak eragin handia du ondarrean. Izan ere, hondartzaren goiko aldean, harea elkartu egiten da, hori dela eta haren maila desorekatuta dago, hareak bere mugimendu naturalak egitea galaraziz.

Beraz, taberna jatetxea oztopo bat da, neguan itsasoak harearekin talka egiteko eta Ondarreta hondartzaren egitura, neguko ekaitzekin lotuta dago.

Honekin batera, ekaitz ugari neguetan, normalean, hondartzaren perfil baxuan ondarra kantitate handiak biltzen direla diote.

Azken urteetako ekaitz ahulak, Ondarreta hondartzan hare malda handi bat egitea lortu dute, era berean, harriak azaleratuz.

Informeak dio, beharrezkoa dela harearen jarduera protokoloa berrikustea eta ez duela harri kentzea gomendatzen.

6. KONTXA.

Itsas Hondoan dagoen giroa, kanpoaldeko giroarekin alderatuz oso desberdina da.

30 metroko sakoneran, arroka multzoak daude eta bertan itsan ondoan topatu daitezkeen hainbat organismo molusko eskolez eta alga gorriez osatuta. Hondoan ere, hondarra dago.

AZTI-Tecnalia 2005ean hasi zen Euskal Herriko itsasbazterrak aztertzen eta sorpresa handia eman zuen emaitzak jasotzean.

Hasteko, mapa topografiko bat egin zuten, itsasoaren hondoan dagoen erliebea erakusten zuena. Txinguditik Kantabriara bitarteko itsasertz guztia aztertu zuten 100 metroko sakonera arte. Ikerketa hauek 2005 eta 2009 bitartean egin zituzten.

Sakonera txikietan eta itsasontziek nabigaziorako arazoak izan ditzaketen zonak kartografiatu zituzten. Horretarako, Gipuzkoako Aldundiak utzitako LIDAR topografikoa erabili zuten. Laser izpiak bidaliz jaso zuten informazioa. Eta azkenean, informazioa hobetzeko, sorta aniztuneko zunda erabili zuten. Hau da, itsasontzi batean eramane zuten seinale igorlea eta ur azpira soinu seinale bat bidali zuten. Soinuak zenbat denboran itzultzen zen arabera, mapa topografikoa osatzen joan ziren.

Donostian lortutako irudian gauza ugari topatu zituzten.

Urpeko hustubide bat eta lurreko estratuen segida ikus daitezke besteak beste. Zumaiako flyscharen antzeko egitura ere antzeman daiteke bertan. Hauek harkaitzez osatuta.

Egitura horiek itsas hondoa nahiz uretik kanpo antzeman daitezke. Baina azken hau, zailagoa da.

Flyscha Igeldo mendiko magaletik Santa Klararaino doan eremuan ikus daiteke. Ondoren, tolestura bat eta arroken norabidea kostalderantz aldatzen dela antzematen da.

Adituen arabera, zonalde hori itsaso hondoa kokatzen diren sedimentuen fosil-metatuak arroka bihurtuta dira. Fosilizazio horrek erliebe hori eragin du. Sedimentuak, lehenago aipatutako flyschean azaltzen dira.

Kontxako hondartzatik abiatuta, itsaso barrena gero eta sakonagoa da.

AZTI-Tecnaliak egindako ikerketari esker Euskal Herriko urpeko azalera ez dela heterogeneoa dakigu, hau da, terrazaz osatuta baitago.

Itsasertzari dagokionez, lehen urrutiago kokatzen zen, 120 m-ko glaziarra urtu ondoren, honek gora egin zuen. Gainera, gora egiten jarraituko du berotegi efektua dela eta, kostaldeari gertu dauden auzoei kalte larriak eragiten. Uste da, 40cm gora egingo duela.

Aintzinean Donostiak itxura ezberdina zuen. Urgull mendia tonbolo bat zen, hau da, lurrera hondarrez itsatsita zegoen irla bat.

Alde zaharra, urez betetzen zen itsasmaila altua zegoenean.

Santa Klara uhartea eta Urgull mendiaren artean, lautada bat zegoen. Gaur egun, Amara auzoan dagoen haran bat da. Horri esker Urumeako antzinako urbidea bertatik pasatzen zela dakite eta itsasoa lautada horren amaieran hasten zela.

Lehen aipatutako mapari esker, sedimentuen dinamikak, habitat desberdinak eta olatuen energia aztertzen dituzte.

Donostiako itsasoaren lehenengo zatian, hondarra dago eta sakonera hartzen duenean, arroak daude. Korronteak mendebalderantz direnez, ez dute eragozpenik jartzen, itsaso zabalean izan ezik.

Mapa hau bukatu ondoren, AZTI-k, biodibertsitatea aztertzen ibili da.

Arroka guneetan biodibertsitate handia dago, urrutiko paradisua izango balitz bezala, koral horiak, esponjak, gorgorriak, anemonak eta itsas pepinoak topatu daitezke. Hauek, espezie delikatuak dira, eta itsasoan bizitzeko baldintza bereziak behar dituzte. Horregatik oso garrantzitsua da, inguru horiek zaintzea, galduz gero, oso zaila baita berreskuratzea.

Lurzorua ez dago hareatza lauez osatuta. Toki batzuetan duna txiki batzuk ageri dira. Hondarra ez da fina eta sedimentuak ikus daitezke. Beste leku batzuetan, kaskagailua dago, hau da, molusko oskolez eta triku oskolez osatutako gainazala.

Lehenago aipatutako hustubidearen ondoan, materia organikoa dago eta horretaz elikatzen diren espezieak agertzen dira inguruan.

Geldium Corneum alga ageri da, baita alga gorriak ere. Lehenengo algari dagokionez, Donostian dentsitaterik handiena dago, tenperatura epelagoa da eta.

***IX. PASAIAKO PORTUA:
INGURUGIROKO
EGOERA***

1. INFORMAZIO OROKORRA: LAGINKETA PUNTUA.

Información general: 1. Punto de muestreo		1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	
1. Nombre		Arando Txiki Zenekozuloa	Molla Berria	Ondartxo Gurutzeko Muturra	Torria Kalparreko Muturra	San Pedro Pescadería	Hospitalillo Trintxerpe	Reloj	Avanzado	Transatlántico	Molinao	
3. ¿Conoces la zona?	Mucho	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	
	Bastante											
	Poco/nada											
¿Limpian la zona?	Durante todo el año											
	Sólo en época de verano											
	A veces			X	X	X	X	X	X	X	X	
4. Meteorología	Nunca	X	X									
	Buen tiempo	X	X	X	X	X	X	X	X	X	X	
	Cielo nuboso/niebla											
	Lluvia		X	X	X	X	X	X	X	X	X	
Temporal/galerna	Temporal/galerna											
	5. Accesibilidad hasta el punto de muestreo	Difícil o imposible	Fácil a pie	Fácil a pie	Fácil en vehículo	Fácil a vehículo	Fácil a vehículo	Fácil a pie Autorización	Fácil a pie Autorización	Fácil en vehículo Autorización	Fácil en vehículo Autorización	
	6. Descripción del lugar.	Dunas										
		Playa										
Ría												
Rocas		X	X									
Marisma												
Otros (especificar)												
Puerto				X	X	X	X	X	X	X	X	
Población												
Muelle						X						
Carretera					X		X	X	X	X	X	
Otros (especificar)	Acantilado	Acantilado	Paseo de Puntxas									
7. Actividades.	Ninguna	X	X									
	Industria					X	X	X	X	X	X	
	Mantenimiento de barcos (astillero,...)			X		X						
	Residencial				X		X	X		X	X	
	Actividades recreativas/deportivas				X		X					
	Hostelería y Turismo											
	Pesca y pesca deportiva			X		X						
	Marisqueo											
	Recolección de algas											
Otros (especificar)			Paseo					Carga y Descarga				
8. Altura del punto más cercano			68.2		23							

1. KOADROA. Laginketa puntuen informazioa.

Analisiak egin diren **G-70** blokeko zonalde guztiak oso ezagunak dira eta Pasaiako eta Donostiako udalekoak dira. (**1. KOADROA** ikusi).

1. eta **2.** zonaldeak ez dira inoiz garbitzen eta beste guztiak batzuetan garbitzen dira. **1.** eta **2.** puntuak ezin dira garbitu, ezinezkoa edo zaila delako haietara heltzea. Gainera leku hauetan itsaslabarrak daude. Nahiz eta ez garbitu, normalean leku garbiak dira eta egoera naturalean daude.

Analisiak egin ziren egunean euria egin zuen, eta ere aurreko eguneko arratsaldean. Goiz zaila bat egin zen, eta horregatik emaitzetan baldintza hauek eragina izan dezakete.



18. ARGAZKIA. G-70 Blokea.



19. ARGAZKIA. Kirol-jarduerak Pasaiako Portuan.

Laginketa punturaino heltzeari dagokionez, bakarrik ezinezkoa edo zaila da lehenengo eta bigarren zonaldeetara heltzea. **2.** eta **3.** puntuetako parte bateraino heltzeko erraza da oinez joatea, eta **4.**, **5.** eta **6.** zonaldeetan ibilgailuan erraz heldu daiteke.

7., **8.**, **9.** eta **10.** puntuetaraino heltzeko baimena behar da, leku hauek mugatutako sarrera daukaten portuko zonak dira eta. Baina aurretiko baimena eskatzen, idatziz, ez daude arazorik.

Portuko zonaldean bakarrik onartzen da sarrera langileei edo baimena daukan jendeari. Portuan oso kontrolatuta dago sarrera eta irteera.

Lekuen deskribapenetan, **1.** zonaldea da itsasadarra daukana Oiartzun ibaiaren bokalea izateagatik eta **2.** puntuarekin batera itsaslabarrak dituzte. **2.** eta **3.** ere dituzte haitzak haien itsaslabarretan. **3.**, **4.**, **5.**, **7.**, **8.**, **9.** eta **10.** laginketa puntuetan portuaren parte dira eta **4.**, **6.** eta **8.** sektoreak portuko kaiak dituzte bakoitza bere izenarekin.

Biztanleak dituen puntu bakarra **5.** da eta B° San Pedro-ko zonaldea da. Errepidea **7., 9.** eta **10.** zonaldeen parte da, N-1 zaharra da. **3.** zonaldea Paseo de Puntas dauka oso ibilia biztanleengatik eta **6.** aparkaleku bat du hurbiltasunetan.

Zonalde guztietan jarduera desberdinak praktikatzen dira **1.**an izan ezik.

Industria eta bizitegi-jarduera dira gehien praktikatzen diren jarduerak, **6., 7., 8., 9.** eta **10.** puntuetan portura erlazionatutako industria eta **4., 5., 6., 7., 9.** eta **10.** puntuetan Pasaiako eta Donostiako Herrera Auzoa barrutien bizitegi-jarduera. Jarraitzen dio ontzien mantenua **3.** eta **5.** zonaldeetan, bai ontziola zaharra, Albaolaren obra, bai arrantza-ontzien zona.

Olgetarako eta kiroleko jarduerak **4.** eta **6.** sektoreetan aurkitzen dira lur zingiratsuen presentziarengatik. Bertan kiroleko ontzi txikiak eta belaontziak porturatzen dira.

Arrantza **3.** eta **5.** zonaldeetan, bertan arrantzale afikzionatuak joaten dira eta **3.** zonaldea paseo bat dauka, Puntasena, eta **8.** Portuko karga eta deskarga leku bat da.

2. INFORMAZIO OROKORRA: ZONA INTERMAREALA ETA SUPRAMAREALA.

G-70 Blokean zona intermareala, **1.** puntutik **10.** punturarte, 5m baino gutxiko zabalera dauka. **4.** puntutik aurrera altura neurtzen da portuko kaiak egoteagatik eta portuko zonaldea izateagatik.

Zona intermarealaren estaldura, **1., 2.** eta **3.** puntuetan, haitz solidoena eta



20. ARGAZKIA. G-70 Blokeko 5. zonaldea



21. ARGAZKIA. G-70 Blokeko 8. zonaldea.

landarediena bakarrik **1.** eta **2.** zonaldeetan. Beraz, ekosistema naturala mantentzen den zonaldeak dira. (**2. KOADROA** ikusi).

Información general: 2. Zona intermareal y zona supramareal			1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Zona intermareal	Anchura	< 5m	X	X	X							
		5-50 m										
		> 50 m										
		Altura (puertos)				4	1,5	2,5	3	3,5	3	2,5
	Cubierta	Roca sólida	X	X	X							
		Cuantos rodados (>20 cm)										
		Gravas (< 20 cm)										
		Arena										
		Fango										
		Vegetación	X	X								
Otros (especificar)				Muelle	Muelle	Muelle	Muelle	Muelle	Muelle	Muelle		
Zona supramareal	Anchura	< 5m	X	X	X							
		5-50 m										
		> 50 m										
		Altura (puertos)				3	1	1	1,5	1,5	1,5	1
	Cubierta	Roca sólida	X	X	X							
		Cuantos rodados (>20 cm)										
		Gravas (< 20 cm)										
		Arena										
		Fango										
		Vegetación										
Otros (especificar)			Hormigón	Muelle	Muelle	Muelle	Muelle	Muelle	Muelle	Muelle		

2. KOADROA. Zona intermarealaren eta supramarealaren informazioa.

Zona supramarealeko estaldurari dagokionez, berdina gertatzen da **1.**, **2.** eta **3.** puntuetan eta ere ikusten da haitz solidoa, itsaslabarrak daudelako. Beraz ekosistema nahiko naturala da.

Bakarrik **3.** zonaldea dago estalita hormigoiez, eta haitzez, eta **4.** zonaldeetik **10.** zonalderaino portuko kaiengatik ordezkutzen dira. Ekosistema guztiz antropikoa da.

Laburbilduz, zona intermareal eta supramarealeko egoera Pasaiako Portuko **G-70** Blokean oso berdintsua da.

3. URAREN AZTERKETA.

G-70 Blokeo uraren froga fisiko-kimikoak baloratzean, esan daiteke, froga guztiak kostaldean egin direla, **6.** eta **10.** zonaldeetan izan ezik. **6.** laginketarako puntua,

tutueria baten ondoan dago kokatuta eta **10.** berriz, Molinao ibaiaren bokalean. (**3. KOADROA** ikusi).

Análisis del agua	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
Costa		X	X	X	X		X	X	X	
Río/afluente										X
Tubería						X				
Nitratos NO₃⁻ (mg/l)		0	5	5	5	5	5	5	0	5
Fosfatos PO₄³⁻ (mg/l)		0	1	2	1	1	1	1	1	1
Bacterias coliformes						Muchas				Demasiadas
Temperatura		15	16	14,5	14	15,6	15,4	13	11	14
O₂ disuelto (mg/l)		11	11	14	11	11	4	11	8	11
Saturación de O₂		78	90	100	85	90	81	85	35	85
pH		7,5	7	8	8	7	8	8	8	8
Turbidez		4	4	3	4	3	4	3	4	3
Salinidad (ppt)			45		30	45		45		45
Nitritos NO₂⁻ (mg/l)		0	1	1	1	1	1	1	1	0,5
Amonio NH₄⁺ (mg/l)		0	1	0	0	1	0,5	0	0	0
Cloro Cl (mg/l)										
Azul de Metileno (%)		100%	100%	100%	100%	50%	50%	50%	100%	50%
Permanganato potásico		Nada	Nada	Nada	Nada	Poco	Poco	Nada	Nada	Nada
Dureza total (° d)										
Dureza carbonatos (° d)										
Espumas		No	No	No	No	No	No	No	No	No
Mal olor		No	No	No	No	No	No	No	No	No
Mal color		No	Si	Si	Si	Si	Si	Si	Si	Si, marrón claro
Eutrofización		No	No	No	No	No	No	No	No	No

3. KOADROA. Uraren azterketa.

